



IKER BARANDIARAN

OLE ENT(Z)ERO, SAN CHESKI ETA BEDEINKATU EZIN DIRENAK

Afrikako iparraldean lanean hiru hilabete pasatu zituen aldi batean, hango eguzkiak belztuta etorri zelarik, etxera bueltatzeari ez nuen ezagutu eta Olentzero zela pentsatu ei nuen. Halakoak pasatu eta gero, aitak gutxiago bidaiazeko ahalegina egin zuen, eta Olentzero, beste etxeetara bezala, gurera gauzei etortzen hasi zen. Gabonetako apaindura berezirik jartzen ez bagenuen ere, Olentzeroren etorrera oso estimatua zen guretzat, jakina. Eta aitona-amonen etxetik ere pasatzen zen. Han egiten genituen zenbait bazkari eta afari, familiaren berroan, erabat modernoa zen aitonarekin eta goxoetan goxoa zen amonarekin.

Modernoarena diot, aitona barazki-jalea nuelako. Bere aitaginarreba, artzaina zena, Gerra garaian mendian frontetik hurbil bizi izandakoaren erruz hiltorian egon zen eta petrikilo batek ia mirakuluz salbatu zuen. Haragia ez jateak salbatu zuela esaten zuen; eta hala bada, aitonak irakaspen horiek zuhur jarraitzen zituen Gabonetan ere.

OLENTZEROREKIN HASERRE

Olentzeroren harira bueltatuta, berarekin erabat haserretu nintzen. Sasoiko gaztetxo guztiok patineteekin ibiltzen hasi ginen. Ez pentsa orduan *skate* hitza hona etorrita zegoenik, ezta haren gainean zutik ibiltzeko gai ginenik ere, nahiz eta handik zenbait urtera errefuxiatuta bizi izandako lagun batek atzerrik halako bat ekarri eta guk estralurtarra bailitzan begiratzeko genion tramankuluari. Gure artean izugarri zabaldu ziren Sancheski izeneko patinete laranja kolorekoak. Bada, nahiz eta neuk behin eta berriro eskatu, nire etxera ez zen Sancheski

delakorik heldu, pixka bat txikiagoa zen eta ipurdia gainean ozta-ozta jarri nezakeen koa-drotxoz jositako Amaia izeneko patinetetxoa baizik. Ze lotsa eta amorrua, Sancheskiaren jesarritako lagunez inguratuta, Goraberako aldaia jaisten ahalegintzen nintzen bakoitzean. Ez nion Olentzerori luzaroan barkatu!

Horregatik Gabonei bizkarra ematen hasi nintzen eta beste gauza batzuk deskubritzen. Santomas jaiekin batera hartzen genituen oporrak, parranda giroan. Kanean, tabernetan, gustura ibiltzen ginen. Garai hartakoak dira, esaterako, Herrera de la Mancharen zeuden presoek elkartasuna emateko egiten ziren autobus txangoak.

Olentzero faltan, han zeuden euskal presoek berotasun pixka bat helarazteko egiten zen bidaia, eta estepa antzeko hartan hainbeste jende batuta presoengandik hain hurbil eta aldi berean urrun bizitakoa ezin da deskribatu. Ezta harako joan-etorria ere, abentura hutsa baitzen esperientzia berriak deskubritzen ari ginen gaztetxoentzat.

Gabon horietan kaleratu zuen, hain justu, Herrera de la Mancharen lehen kontzertua egin zuen Negu Gorriak taldeak 'Hator hator' eguneratu eta azkartu zuen single arrakastatsua, herriko disko dendetako erakusleihoak bete zituen, eta Gabonaren soinua, usaina eta hutsunea tabernetara, kalera, ekarri zigan halabarharrez.

Gerora, nagusitu ahala eta batez ere Unidad Alavesa eta UPN delako frankiziak Olentzero boikotatzen aritu izanaren ondorioz, berrartu nuen ikazkina-renganako *xinpatia*. Eta, zer esanik ez, gurasoa naizenetik... Baina guztia ezin da kontatu.

Gabonak ez dira inoiz bereziak izan. Ez diegu garrantzi berezirik eman. Aitak hilabeteak egiten zituen atzerrian lanean eta amak nahikoa zeukan elurra sarri egiten zuen negu gogor haietan seme-alabok polo gorrotagarri eta partxez betetako panazko prakez ondo babesten; baita Guardia Zibila kuarteletik

irteten zen bakoitzean haien gehiegikerietatik gu aldentzen ere.

Izan ere, ni txikia nintzenean errepideetako barrikadak Seat 850 txikiekin egiten ziren, baina inoiz zibilak izan ez diren gardien bortizkeria eta inpunitatea itzela zen, ia gaur egun bezala.

Eraz antzeman daiteke gauza batzuk ez direla askorik aldatu, baina beste batzuk, eguraldia

kasu, bai. Txikia nintzenean negu guztietan egiten zuen elurra eta ugari, gainera. Sasoi hartan askotan ematen zizkiguten oporrak ikastolan, elurraren eta izotzaren erruz berogailuak lanik egin ezin zuelako. Gaur egun, aldiz, elurra belaunaldiz belaunaldi egiten du, gure ondorengoei zertan datzan azaltzeko, besterik ez.

Olentzero ere urtero etortzen zen gurera, noski. Baina aitak